

Immigrazioarekiko gizartearen ikuspegia



Lauaxeta Ikastola
DBH3B
Aroa Fernandez
Iria Hueto
Maidier Meabe

Laburpena

Ikerketa honen helburua etorkinei buruz hausnartzea eta zein bizimodu zaila daramaten ikustea da; horretarako, jolas bat egin da ikasleentzat. Jolasa etorkinen lekuan jartzeko da, zer bizimodu mota daramaten ikusteko eta, horrela, haien lekuan ipintzeko. Etorkinei buruzko informazioa bildu eta inkesta bat egin ondoren, jolasa diseinatu eta martxan jarri zen. 14 edo 15 urteko 8 ikaslekin proba egin da, denbora murriztu batean. Emaitzak behaketaren bidez atera dira, jolasa amaitu eta gero inkesta txiki bat eginez ere bai. Atera den ondorioa ikasleek etorkinen egoerari buruzko datuak ikasi dituztela da, baina berriro ere probatu egin nahi da jolasa hainbat puntuetan aldaketak eginez.

Hitz klabeak : etorkina, immigrazioa, jolasa, ikastea, gizartea.

Aurkibidea

Arazoa	3
Marko teorikoa	3
Metodologia	6
Diseinua	6
Materiala	6
Prozedura	6
Emaitzak	8
Ondorioak	9
Bibliografia eta erreferentziak	10
Eskerrak	10

Arazoa

Proiektu eta jolas honen helburua etorkinekiko ideia aldatzea da edo behintzat haien lekuan jartzea eta hausnartzea. Etorkinen gaia oso polemikoa da gaur egun. Politikariek ez dakite zer egin edo zelan kudeatu etorkinen kantitatea, eta bestalde, gizarteak ez ditu ondo ikusten eta onartzen, ideia negatibo bat dute.

Proposatzen diren hipotesiak hurrengoak dira:

- Ikasleek etorkinen egoerari buruzko informazioa ikasiko dute, jolasean haien lekuan ipintzen direlako.
- Ikasleek jolasa hasi baino lehen hiztegi gutxietsia erabiliko dute immigrantei buruz hitz egitean, jendeak hiztegi hori erabiltzen duelako.

Gai hau aukeratzeko arrazoi nagusia, behin eta berriro telebistan eta aldizkarietan immigrantei buruzko kasuak eta arazoak agertzen direla da. Adibidez, gaia aukeratu zenean etorkin asko Kanariar uharteetara joan ziren bizitza berri bat hastera.

Ikerketa honetan, gauza asko ikasiko direla uste da, hala nola, immigrazioa Espainian, lehenengo sorospenak, jolasari buruzko teoriak eta atzerritar baten egoera kudeatzen jakin.

Marko teorikoa

1. Immigrazioa Espainian

Motak

Immigrazioetarako Organizazio Internazionalak (OIM) hurrengo migrazio motak bereizten ditu

- **Barnekoa**, aldi baterako bizilekua edo bizileku iraunkorra herrialde berean ezartzea dakarren pertsona-mugimendua da.
- **Internazionala**, ohiko bizilekutik kanpoko pertsonen mugimendua da, nazioarteko muga baten bidez.
- **Irregularra**, migrazio mota hori jatorrizko herrialdean sartzea edo ateratzea arautzen duten nazioarteko lege, arau edo akordioetatik kanpo gertatzen da.
- **Regularra**, jatorrizko herrialdeak, igarotze-herrialdeak eta helmugako herrialdeak ezarritako legediaren barruan gertatzen den pertsona-mugimendua da.



- **Lanekoa**, lan helburuekin gertatzen direnean.

Paperak

Azken urte hauetan, atzerritar askok bizitza arriskatu dute beste herrialde bat gurutzatu nahian, lan bila ari direlako edo soldata behar dutelako familia mantentzeko edo beren herrialdean ondo bizi ez direlako edo muga zeharkatzera eraman dituen beste edozein arrazoiengatik. Etorkinetako askok ez dute paperik, beraz, muga legez kanpo pasatzen dute eta horrek, hainbat arazo sortzen ditu.

Aldaketa erraza ez den arren, hainbat aukera daude migrazio-estatusa aldatzeko eta Espainian legezko egonaldiaz gozaten hasteko; egoitza errotzea, gutxienez hiru urte egon behar ditu Espainian modu irregularrean, baina erroldatuta; immigranteak zuzeneko senjde baten mende egotea ekonomikoki; gizarteratze-txosten bat egitea; eta azkenik, arrazoi humanitarioengatik arautzea, babesa eta bisa humanitarioak edukiz.



CIE: etorkinentzako barneratze zentrua.

Espetxez kanpoko establezimendu publiko bat da, non, kautelaz eta prebentzioz, lurralde nazionaletik kanporatzeko espedientea duten atzerritarrak atxikitzen diren.



Behin barruan egoterakoan, 60 egun egon daitezke gehienez eta betebeharrak eta eskubide batzuk daude barruan.

2. Immigrazioaren kausak

Genero gutxietsia

Emakumeen genitalen mutilazioa munduan oraindik ere emakumeen eskubideen bost urraketa larrienetako bat da, behartutako edo haurren ezkontzarekin, sexu-indarkeriarekin, genero-indarkeriarekin eta sexu-salerosketarekin eta -trafikoarekin batera.



Homofobia

Genero gutxietsiaren bezala, hainbat herrialdetan sexu berdineko bi pertsonen arteko erlazioa krimen baten bezala ikusten dute. Pertsona asko ihes egin behar dute bizirik iraunteko.



Politika eta gudak

Jazarpen eta mendeku politikoagatik, herrialde bat utzi eta beste batean bizitzen jartzen dira, edo, gutxienez, bertan behera uzten saiatzen dira, sarritan, erregimen totalitarioen kasuan, bizia galtzera ere irits daitezkeen arren.



Ekonomia



Funtsezko kausak dira edozein migrazio-prozesutan. Izan ere, lotura zuzena dago garapen sozioekonomikoaren eta immigrazioaren artean, eta, beraz, azpigarapenaren eta emigrazioaren

artean. Emigratzen duten gehienek arrazoi ekonomikoengatik egiten dute, pobreziatik ihesi, lanerako sarbidea bilatuz, bizi-maila hobea, lan-baldintza eta ordainsari hobek bilatuz, edo, kasu kritikoagoetan, biziraupen-arrazoiengatik.

4. Arrazakeria

Diskriminazio mota bat da pertsona batek edo pertsona-talde batek ezaugarri edo ezaugarri desberdinak izateagatik beste batzuekiko gorrotoa sentitzen duenean gertatzen dena, hala nola larruazalaren kolorea, hizkuntza edo jaiolekua.



Metodologia

Diseinua

Argazki honetan ikusi ahal da proposatutako jolasaren diseinua. 4 hasiera puntu daude,



oinatzak dauden zirkuluetan. Bestalde, 5 lauki mota daude eta haien arabera galdera desberdinak egingo dira. Eskailera dagoen laukian, lauki batetik bestera joan ahal da galderarik egin gabe. Diseinuaren erdikaldean galderak, txartelak, ONGak eta CIEa daude, jokalaria guztiak txartelak hartzea erraz edukitzeko.

Diseinua horrela proposatu da hainbat herrialdeetatik(alboetatik) erdikaldera joateko, egoera

desberdinak adieraziz. Adibidez, beheko herrialdekoak uretatik joan behar dira erdikaldera heltzeko.

Materiala

Jolas hau egiteko materiala hurrengo da: marko teorikoan ipinitako ia guztia jolasaren arauak eta egitura izango dira, bestalde kartoizko tableroa egingo da goiko diseinua kartoian marraztuz, eta kartulinazko txartelak egingo dira ostean plastifikatuz. Material guztia zerrenda baten idatzita horrela geldituko litzateke:

- Arauak
- Aurkezpen txartelak
- Galdera orokorren txartelak
- 4 kategorietako txartelak: lehen sorospenak, ekonomia, Espainiar kultura eta gertaerak
- Dadoa
- Kartoizko tableroa

Prozedura

Jolas hau martxan jartzeko lehenik eta behin tableroa eta inkesta batzuk prestatu egingo dira. Inkestak jolasa baino lehen eta jolasaren ostean dauden pentsamenduak ikusteko erabiliko da.

Erabilgarria eta fidagarria den ikusteko, hainbat klaseetan jolastu egingo da. Adinaren arabera txartel batzuk edo besteak erabiliko dira, adin guztietan ez direlako eduki berdinak landu klaseetan. Hau kontuan edukita, 3 multzo egongo

dira; umeak, 8 urtetik gorakoak; nerabeak, 12 urtetik gorakoak; eta azkenik, pertsona helduak 16 urtetik aurrera. Saillkapen hau egiteko, kontuan izan da adin berdineko pertsonak ez dutela berdin pentsatzen eta ez direla abiadura berdinean umotzen, baina saillkapen hau egokiena iruditu da.

Hau guztia jakinda, horrela proposatu egin da prozedura:

1. Lehenik eta behin, klasean altuan inkesta bat egingo da hainbat galdera eginez. Erantzunak dokumentu batean apuntatuko dira.
2. Jolasaren lehenengo pausua zelan jolasten den irakurtzea da. Hau da, arauak, zertarako diren txartelak, zer gertatzen den lauki bakoitzean ...
3. Pertsona bakoitzak aurkezpen txartel bat hartuko du. Txartel honetan bere pertsonaia nor den idatzita agertzen da, zenbat diru daukan, papelei buruz informazioa, lana izan badu, bere familia non dagoen eta zergatik joan nahi den edo zergatik joan den.
4. Partaide guztiek dadoa botako dute eta zenbaki handiena ateratzen duena lehenegoa izango da.
5. Dadoa txandakatuz laukietan jausiko dira eta laukien kolorearen txartelak hartuko dira. Galdera edo ekintza txarto egiten bada, dadoa bota baino lehen zegoen lekura bueltatu behar da pertsonaia. Ondo egiten bada, jausitako laukian geratuko da.
6. Jolas honetan irabazlea erdialdeko herrialdean 5 txandaz geratzen den eta papelak dituen pertsonaia da. Izanik ez da irabazle-irabazlea baina bizitzan horrela da, herrialdean geratzen direnak dira haien helburua lortzen dutenak.
7. Jolasa amaitzerakoan, inkesta bat egingo da zer ikasi eta hausnartu den ikusteko. Hau izango da ondorioak ateratzeko baliabidea.

Emaizak

Jolasa probatu eta gero, jolastu duten pertsonengandik jaso den feedbacka positiboa izan da. Orokorrean jolasa gustatu egin zaie eta hainbat gauza ikasi dituzte, hala nola, lehen sorospenei buruzko datu interesgarriak, Espainiari buruzko datuak... Bestalde, orokorrean ikusi egin da ez zirela etorkinen lekuan ipini. Hau da, hasierako txarteltxoak bakarrik irakurri egin zuten, ez ziren haien lekuan ipini.


Taldearen ikuspuntik, jolasaren planteamendua aldatu egin da jolasten zeudenean jolasaren hainbat aspektu ez zirelako planteatu eta inprobisatu egin behar izan dira.

Laburbiltzeko horrela izan zen jolasa; lehenik eta behin arauak irakurri egin ziren. Ostean, talde bakoitzak aurkezpen txarteltxo bat hartu zuten. Jarraian dadoa bota eta jolasten hasi ziren. Laukien kolorearen arabera txartel bat edo beste hartzen zuten. Aspektu honi buruz hitz egiten, jolas erdian gorriak ziren laukitxoak aldatzea erabaki zen, nahi den txartela hartuz. Galdera txarto egiterakoan, laukian geratzen ziren jokalaria, ez ziren atzerantz boltatzen hasieran planteatu bezala. Jolasten zeuden bitartean, 3 fitxa lortu behar zirela erabaki zen, 4 beharrean. Aldaketa hau egiteko arrazoi nagusia jolasa oso luzea egiten ari zela da, gehituz lauki gorriko txartel gutxi zeudela. Irabazlearena ere murriztu egin zen, 4 txanda egon behar ziren irabazteko, ez 5. Amaieran ez zen inkesta bat egin, bideo bat egin zen jokalariei hainbat informazio eskatuz, gero jolasa erabilgarria den ala ez ondorioztatzeko.

Tableroa diseinatu bezela geratu da gutxi gora behera eta esperimendazioa 14 urteko pertsonekin egin da, zehatz-mehatz 8 pertsonekin, 4 bikote. Inkestak esperimendazioa baino lehen egin dira eta emaitzak hurrengoak dira:


Immigratzeko kausa nagusiei buruz galdetu egin zen eta 42 pertsonetatik 6k bakarrik markatu zuten genero gutxietsia. Jokatzekoan ere bai, pertsonai batzuk genero gutxietsia dela eta immigratzen zuten eta jokalariei arreta deitu zien.

Zeinek dira immigrazioaren kausa nagusiak zure ustez?
42 respuestas



Immigranteei laguntzen dieten ONGi buruz galdetzerakoan, gehienkoak ez zuten ezagutzen bat ere ez. Ezagutzen zuten jendearen artean hurrengo izenak irten ziren: UNICEF, Cruz Roja, Rio de Oro, Save the Children eta Caritas.

Ezagutzen dituzu immigranteak laguntzen dituzten ONGak?
42 respuestas



Azkenik, CIE bat labor azaltzeko eskatu zen eta gehiengoek esan zuten ez dakitela zer den, bakarrik 2 pertsonek bazekiten zer den.

Ondorioak

Hasieran proposatutako hipotesiak hurrengoak ziren; ikasleek etorkinen egoerari buruzko informazioa ikasiko dute, jolasean haien lekuan ipintzen direlako; eta ikasleek jolasa hasi baino lehen hiztegi gutxietsia erabiliko dute immigrantei buruz hitz egitean, jendeak hiztegi hori erabiltzen duelako.

Lehenengo hipotesia ez da guztiz bete. Emaitzetan adierazi bezela, jokalaria etorkinen egoerari buruzko informazioa ikasi dute baina ez dira haien lekuetan jarri. Aurkezpen txartela irakurri eta jolasten hasi ziren, etorkinaren informazioa kontuan hartu gabe. Egia da, jolasa hasterakoan pertsonaien egoerak arreta deitu ziela baina jolasterakoan albo batera utzi zuten informazio hori.

Bigarren hipotesiari buruz hitz egiten, ez da bete. Nahiz eta inguruan hainbat aldiz entzun diren komentarioak, jolasterakoan eta jolasa hasi baino lehenago ez da lekuz kanpoko hitzik entzun.

Jolasa egin zenean egunean, ez zegoen hura garatzeko denbora askorik izan. Jokoa egiten zen lehen aldia zen, beraz hainbat gauzetan inprobisatu zen.

Inkestak ikusita ondorioztatu da pertsona gutxik dakitela etorkinei buruzko informazio orokorra (CIEak, ONGak...). Bestalde, pentsatu baino komentario gutxiago entzuten dira gizartean eta inkestak egin zuten pertsonetatik gutxik jaso edo entzun dute arrazakeri komentario bat.

Ondorio orokorra jolasa berriro probatzea da. Jolasten zeuden bitartean aldatu ziren gauzak kontuan edukita, inkestetan ezer ez zekiten pertsonekin jolasa egin nahi da, benetan balio badu konprobatzeko. Bigarren aldi batean probatuko balitz, jolasa gehiago garatuko zen eta hobeto planifikatu dena ez inprobisatzeko ezer.

Hau dela eta, hurrengo pausua berriro jolasa probatzea da. Hobetu behar dena, arauak ondo zehaztea eta dinamikan gehiago sartzeko da. Esan bezala, jokalaria ez ziren etorkinen paperean sartu askorik.

Bibliografia eta erreferentziak

- https://eacnur.org/blog/mutilacion-genital-femenina-mujeres-y-ninas-en-peligro-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/
- <https://eacnur.org/blog/que-es-el-racismo-y-tipos-de-racismo-tc-alt45664n-o-pstn-o-pst/>
- <https://www.boe.es/boe/dias/2005/01/20/pdfs/A02157-02165.pdf>
- <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2901210>
- https://apdha.org/media/Guia_SinPapeles_2011.pdf
- <https://www.publico.es/sociedad/derechos-gobierno-deja-migrantes-irregulares.html>
- <https://legalteam.es/lt/no-siempre-hace-falta-un-contrato-de-trabajo-para-obtener-papeles-en-espana-bajo-el-supuesto-de-arraigo/>
- <https://www.levante-emv.com/comunitat-valenciana/2019/10/03/inmigrante-irregular-denunciar-expulsado-13642132.html>
- https://www.infolibre.es/noticias/opinion/columnas/2019/04/12/inmigrantes_ilegales_93921_1023.html
- https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/1848-FRA-Factsheet_FRIM_ES_BAT.pdf
- <https://www.libertaddigital.com/temas/inmigracion-ilegal/>

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dira esperimentazioan parte hartu zuten 8 ikasleei jolasa probatzeko, eta baita ere zientziako irakasleari proiektua zuzentzen lagundu duelako.